

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

538

EBAZPENA, 2022ko urtarrilaren 14koa, Arrantza eta Akuikultura zuzendariarena, Algaloop enpresaren akuikultura-proiektua jendaurrean jartzen duena.

Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza, Asteasuko Algaloop, S.L.U. enpresaren mikroalgak hazteko espedientea izapidetzen ari da.

Horrenbestez, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ondoren aipatzen den espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Espedientea: mikroalgak hazteko proiektua. Lekua: Asteasuko agroaldea Z.G. 20159 Asteasu (Gipuzkoa).

Proiektuak ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar du.

Eusko Jaurlaritzako Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza da proiektua baimentzeko organo eskuduna.

Bigarrena.– Espedientea helbide honetan dago ikusgai:

https://www.euskadi.eus/jendeaurreko_erakustaldia/algaloop-sustatutako-akuikultura-ustia-tegi-proiektua/web01-a2arraku/eu/

Eskuragarri dago, baita ere, Eusko Jaurlaritzaren Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza (Vitoria-Gasteiz, Donostia-San Sebastián kalea, 1, Lakua I Eraikina, 3. solairua). Bertan eskura daiteke proiektuaren gaineko informazioa.

Alegazioak aurkeztu daitezke 30 asteguneko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik aurrera, egoitza elektronikoko honetan:

pesca-dec@euskadi.eus

Edo Eusko Jaurlaritzaren Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza (Donostia-San Sebastián kalea 1, Lakua I eraikina, 3. solairua).

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 14a.

Arrantza eta Akuikulturako zuzendaria,
LEANDRO AZCUE MUGICA.